

# Etxean da marinela Etxeitaren gaineko gogoetak

*Edorta Jiménez Ormaetxea Jna.*

Idazlea.

Acercamiento a la figura del poco conocido Jose Manuel Etxeita, navegante e interesante hombre de empresa, que llegó a ser alcalde de Manila. De vuelta a su Mundaka natal, escribió importantes novelas en euskera, a pesar de lo cual se trata de un escritor poco considerado.

Nabigatzaile eta Manilako alkate izatera iritsi zen baina oso ezaguna ez den enpresari honen azalpen biografikoa. Mundakara, bere sorterrira, itzuli eta eleberrigarrantzitsuak idatzi zituen euskaraz; alabaina, ez da estimu handiegian hartutako idazlea.

An approach to the little-known figure of Jose Manuel Etxeita, an interesting sailor and businessman, who came to be mayor of Manila. On his return to Mundaka, his birthplace, he wrote important novels in Euskera; in spite of which he is a writer who has received scarce consideration.

Jose Manuel Etxeita (Mundaka, 1842-XII-13/Mundaka, 1915-III-1) gizon ondo kokatua dugu "89koa" eritzi izan zaion bizi-giro haren nondik norakoaz gogoeta egiteko. Alde batera utzita literatura hutsari dagokionez behintzat euskarazko horren periodizazioa eta gaztelera-azkoarena erabat ezberdinak direla, esan dezadan, hasteko eta behin, biografia osoari begiratuz gero enpresa-gizon guztiz interesgarria dela Etxeita.

1842an jaioa, esanda utzi dugun legez, Filipinetan hainbat kargu eskuratu zuen, hala nola, Manilako alkate (itxura denez, hango azken alkate inperiala izan zen). Hala bada, egin diezaiegun gainbegiradaxo bat haren bizitzako datu nagusiei, horretan hasi baino lehen beste zera ere argiturik, alegia, hemen emango ditugun datu llabur eta murrizak direla Jose Manuel Etxeitaren bizitzaz oraingoz dakigun gutzia, oso-osorik.

"Gizon ibilia izan zan Etxeita, munduko bazterrak ezagutuneko. Mundakan 1842ko abenduaren 13an jaioa, bertan hil jakun 1916ko martiaren 1ean. Nautika ikasketak eginda Bilbon, zenbait urte itsasoan emon ostean Larrinaga etxeko ontzi-taldeko kapitain eta ondoren ontzien ikuslari-kapitaina Manilan. Ezagutu ebazan, bai, Habana, Guayaquil, Hornoseko lurmuturra... Joan etorri honeen artean behin Lipervool-etik Habanara egin ebana dogu ezagunena. Ingalaterrako uri honetan egoala, ibiltaldi bat egin eban Habanara; eta hemendik bihurtzean sekulako ekatxa izan eben; eta kapitaina, osasunez makal ebilela-ta, ez zan ausartu aurrerantz egiten. Orduan, kapitain honen gurariz, Etxeita jarri zan ontziko buru 20 urte baino ez zitularik. Gero Manilan hainbat kargu eta ardura eskuratu eban, euren artean Manilako Alkateza." (Aitor Etxebarria - Adolfo Arejita, Josetxo, 8. or.)

Etxebarriak eta Arejitak ematen dituzten datuak *Euskal esnalea* aldizkarian 1915ean Gregorio de Mugicak aldizkarian eman zituen berberak dira. Harrezkero behin eta berriro errepikatu dira, ostera. Datu berririk ere eman zuen Eusebio Erkiagak *Elerti* aldizkarian<sup>1</sup>. Badirudi lekitiarrak ikusi egin zuela

<sup>1</sup> Bizitzako asi-orraziak

Lenengo urteak, umezaroa ta gaztetxualdia, jaioterrian emon zituan; aitaren ondotoxoan baina txit gazterik ezagutu eban itxas gogorreko bizitzea. Agiri danez, amabi urtegarrenerako ontzi andiko txo edo, joan zan.

Geroago, Bilbon egin zituan ikasketak, nautika-gaiak ain zuzen, guztizko notak lorturik. Agregatu delakotzat joan Santanderetik Habanara ostera bi egiteko. Irugarren pilloturako azterketak Ferrol-en egin, ta ondoren, Hornos lurmuturrean zear, Gauyaquil-era joan etorri batzuk egin zituen. Ostera batean, izenturiko Hornos lur-mutur orretan, ekatzak hartuta, ekarren kakao-zama aztuna ontzi barruan, batetik bestera aldatu izan yakelako noiz ondoratu ibili ziran.

Matanzaseraino joateko aukera bat ez eban galdu nai izan eta orrezaz ganera, Ameriketara beste ostera bi eginaz, bigarren pilloturako bear zituan egunak metautea jadetsi eban.

Eskabide bat egin eutsan II Isabel erreginari errege-agindu baten oinarriaz baliaturik, eta eskari ori ontzat artea lortu eban, ta obari ori andik lasterrera, pillotu guztiengan zabaldua izan zan. Geroago, Derrota-pillotu edo itsaso guztietarakoaren izenpidea beregandu eban.

Liverpool-en fragata aundi batean sartu zan, hain zuzen, ibiltaldi ori ez eban guztiz zorione-

*Memorias* izeneko eskutitza, zeinetan Jose Manuelek bere bizitza kondatzen duen. Tamalez, “oroitzapen edo gomuta” horiek ondo gordeta dituzte famili-koek, inori ikusten utzi barik.

Orain arte esan duguna gogoan, Etxeitak biografia zehatzagoa eskatzen du, bai, agian aipatu eskutitz horrek polito lagunduko lukeena osatzen.

Jose Manuel Etxeita Juana Abaroagaz ezkondu zen, eta ezkontza horrekiko datuek gizonaren barru-ındarraren, kemenaren, adoreaen berri ematen digute.

Ezkontza-agirian irakurtzen denaren arabera, boterez ezkondu zen, 1867ko azaroaren 25ean, Santa Katalina egunez. Orduan “piloto de marina mercante” delakoa zen, ezkontagirian irakurtzen denarekin bat. Boterea Bermeon eman zen, urte bereko uztailearen 23an. Jose Manuelek 26 urte zituen orduan. Harrigarriena, ostera, ezkontagirik hurrengo lerroetan irakurtzen dugu, ezkontza egiteko alde aurretik lortu behar izan baitzuen Erromako Aita Sainduaren haizua, 1866an emana dena:

Bula de dispensa papal concedida por el papa Pio Nono por el impedimento de tercer grado de consanguinidad.

Horra, bada, *Josetxo* elaberrian protagonistek ezkondu ahal izateko gainditu behar duten oztopoa, alegia, klase-mailakoa barik beste bat; hain zuzen ere, elkarren lehenguso-lehengusinak zirela ezkongai biak.

Ezkontagiriaren bidez dakigu, halaber, J. M. Etxeitaren aita hargina zela, sortzez Garaikoa; Juanarena, Antonio de Abaroa, jaiotzez mundakarra, merkatal-untziko kapitaina zelarik. Ezkontide bien amak, M<sup>a</sup> Josefa Luzarraga eta Ventura de Ajuria-Goseascua, mundakarrak izanik.

Ulertu behar da, hala bada, Jose Manuelek, ezkondu ahal izateko, egundoko ahalegina egin behar izan zuela, hain zuzen ere, Aita Santuaren dis-pentsaren bila Erromara jo behar izan zuen. Gizon gaztearen kemenaren erakusgarria eta maitasunez egindako ezkontza baten lekuko. Azken alderdi honetatik, *Josetxo* elabarrian maiteminduek gainditu behar dituzten oztopoek ageri dute, bai, idazleak bizi izandako errealitatearen isla.

Gogo sendoko gizon ikusten dut Jose Manuel. Ez zen zeregin makala izango, ez, botere bidez hartutako emaztea gero Liverpoolen berrestea, hurrengoan irakurtzen denagaz bat:

Nota marginal: Ratificaron este matrimonio los contrayentes en la ciudad de Liverpool el día veintinueve de noviembre de mil ocho-

---

koa izan, Habana-ra zanean, Mexiku-ko Matanzas-erako agindua emon eutsen, ta emen lau ila-betean lotu bearra izan eben, laterri ori guduan edo ebilela-eta.

Onuzkoan, sekulako ekatxa izan eben, eta kapitana, osasunez makal ebilela-ta, ez zan ausartu aurrerantza egiten. Orduan, zarraren gurariz ta oniritziz, Etxeita jarri zan ontziko buru.

(Eusebio Erkiaga, Elerti, 1962, 108-109 orr.)

Erkatu bitez datu hauek eta Josetxo elaberrian aurkidekoak. Elkarrekin bat datoz goitik behera.

cientos sesenta y siete como consta en el fólío de la partida de 263 y vuelta.

Bada, “263 y vuelta” horretan, latinez idatzitako esaldi batzuk dagoz, gero gazteleraz ageri direnen berdin-berdinak, nik uste. Hona hemen:

La partida que antecede es fiel y exacta de otra librada por precito Jorge Porter a quién autorizé para que pudiese asistir a la revalidación del matrimonio que por procurador contrayerosn los expresados José Manuel de Echeita y Juana de Abaroa y que conste firmé la presente en Mundaca a treinta de abril de 1868.

Ezkontza Liverpoolen berretsi zutela dioen ertzeko ohar horretan beste hau irakurtzen da:

Los contenidos de esta partida se velaron el día tres de noviembre de 1870.

Beraz, eta gaizki ulertu ez badut, urte bi eman zuten, bata Liverpoolen eta bestea Mundakan, harik eta elizako zeremonia egin ahal izan zuten arte.

Seme bakarra izan zuten Jose Manuelek eta Juanak; Salvador Ricardo, 1871ko maiatzaren 22an jaioa, arratsaldeko lauretan eta Mundakan bertan. Beraz, elizazko ezkontza eginda handik sei hilabetera-edo jaio zen seme bakarra izango zutena. Haren bataio-agirian aitaren lanbidea ere aipatzen da, “de profesión navegante” dela esanez. Hala da ze, “pilotu” zehatz hartatik “navegante” zehaztu bakoagoara igaro da gizona. Karrera azken baten beste adierazgarri bat, nik uste. Orain, ostera, interesgarriago litzateke seme bakar horren gainean datu pare bat ematea.

Lehen datua, lehen-lenengo Bizkai Buru Batzarra osatu zutenen artean izan zela Jose Manuel eta Juanaren semea, 1895ean, hau da, Salvadorrek hogeita lau urte zituela. Kementsu zetorren gaztea. Eta, etorri ere, hain kementsu zetorren ze, hona hemen bigarren datua; 1899an Mundakako alkate dugu, han izan den lehenengo alkate jeltzalea, hain zuten.

Azken datu horiek galdera-ikur itzelak zabaltzen behartzen gaituzte, jakin-garria litzatekeelako aita-semeen arteko hartueman ideologikoaren nondik norakoa. Haatik, geroago eutsiko diot berriro alderdi horri.

Aurrera egin baino lehen, ostera, lehenengo hipotesi bat jarri nahi dut mahai gainean, alegia, *Josetxo* elabarriko protagonistak -Josetxok berak- bizi duen aberaste-prozesua Jose Manuelek hogeï-hogeiabost urteak arteko bitarte horretan bizi izan zuela, hau da, hogeï urtegaz Larrinaga etxeko itsasontzi haren ardura hartu zueneko hartatik ezkontzaren bezperara arterakoan. *Josetxo* autobiografikoa dela emanez gero, behintzat. Horrela baledi, eta delakoan nago ni neu, zein marinel ausart-bulartsua, gure Jose Manuel. Goazen ba haren uharan barrena.

Mundakako udalerrian Posta-Administrazioa ezartzeko eskaria sinatzen dute, 1872ko maiatzaren 2an, hogeitaz biztanlek, guztiak gizonezkoak eta izendunak. Bada, ez da Etxeitaeren izena ageri, eta ez da ageri, ezta ere, urte bereko eta hil bereko 13an eskari bera egiten dutenen artean. Kanpoan ote zen, ala, bestela ziren gauzak, hots, anartean ez zela gizon izenduna Jose Manuel Etxeita?

Jose Manuel Etxeitari hegoa galdu gabe jarraitzea ez da erraza. Esate baterako, badakigu Filipinetan hamasei urte eman zituen. Noiz, ostera? Hau galdetzea ez da huskerietan eta adarretan galtzea, gaur mahai gainean jarri zai-gun gaiaz argigarri gerta daitekeen biografia bateko datu garrantzitsu baten bila saiitzea baino haratago baitoa.

Bilaketa horretan aurrera egin dezagun, hona hemen nik neuk idoro dudan dokumentu interesgarri bat horretan lagundu ahal diguna.

“Compañía General de Tabacos de Filipinas” zelakoan 1885. urtean zehar geratutakoen artean, hurrengoa irakurtzen dugu:

Nombramiento de un individuo de la Junta Delegada en Manila- La muerte nos arrebató al Excm. Señor d. Antonio P. Casal, que fue vicepresidente de aquella Delegación, en el que perdemos á un entusiasta cooperador de la Compañía. Para reemplazarlo, fué nombrado Vocal el Sr. D. José M<sup>a</sup> (sic) Echeita, de la casa Larrinaga y Echeita de Manila, cuyos conocimientos mercantiles y navieros pueden ser muy útiles en aquella delegación.

(Compañía General de Tabacos de Filipinas, Cuarto Ejercicio Social, Barcelona, 1886)

Bada, hasteko eta behin, bere enpresa ere sortu zuen, dirudienez, Jose Manuel Etxeitak; “Larrinaga y Echeita” izeneko, agiriaren arabera, eta horretan utziko dut izena, Kepa Ormaetxeak horren izena “Larrinaga, Echeita y Portuondo” beharko lukeela esan badit ere, azken hori ziurtatu barik dut eta. Bigarrenik, alkatetza data hori baino beranduago eskuratu zuela ulertu behar da, bestela aipatu egingo zuket. Ez dakiguna da alkate izendatzea noiz izan zen, ezkondu zenez geroztik eta 1885eko horretara artekoan egin zuenaren berri ez dakigun legez. Susmatzekoa da hamabost urte horietan dirutza polita egingo zuela, Larrinaga Itsas-Etxean pillotu hasitako hura Larrinagaren beraren negozio-bazkide izatera iritsi zenez gero<sup>2</sup>.

Alkatetzaren gaira itzuliz, Kepa Ormaetxeak esan didanez, berak pertsonalki Filipinetako Madrileko enbaxadarekin harremanetan sartu zen, data hori

---

<sup>2</sup> Dena dela, utzi dut esanda nire hipotesia ere: 20-25 urtekoa zela egin zuen ezkontzeko adina diru edo ondasun. Gero dirua egiten segitu zuen, harik eta, bazkideztan, bere merkatal-etxea sortu arte.

jakin guran. Bigarren Mundu Gerratean Japoinarrak han izan zirenean artxi-boak erre egin zirela eta, ezinezkoa ei zen horren gaineko ezer jakitea; horra gaur egun Mundako alkatea den eta lehengusu dudanari eman zioten erantzuna. Jon Kortazarren ustez, daitekeena da Manilako azken alkatea bera izana. Bat nator horretan neu ere.

Nire ustez, Etxeita 1882. urtea aldera ailegatuko zen Manilara, denbora beharko baitzuen karguak eskuratzen hasteko. Horrela izan balitz, izan, 1898an utziko zuen Manila, eta ez dakit behin betiko etxera itzuli ote zen. Ez dut uste, batetik gaztea zelako ezeze, bestetik beraren lehenengo idazlan eza-guna 1908koa delako ere. Idazten hasi, behin jubilatuta ostean hasi zela emanda, zer egin zuen 1898-1908 tarte horretan? Ez zait besterik otutzen bere itsas-merkatal zereginetan ibiliko zela baino.

Bestalde, Manila Tabako Konpainiako ordezkari egiteko helburuaz iritsi bazen, iritsi ere, 1885tik 1901era bitartean egon bide zen Manilan. Nire ustez argi dagoena da guda-zaratak ozen aditzen hasitakoan aldendu zena handik.

Noiz ere izan zen, mende hasierako lehen urte haietako batean Etxeitak, sorterrira itzulita, bere-bereak ei zituen zaletasunak gozatzeari ekin zion. Euskara, musika eta astronomia ei ziren zaletasun horiek. Nolabait esan, Stevensonek olerki batean idatzi zuena dakarkit Etxeitaren zahartzaroak gogora: *etxean da marinela*.

Egin ene hobia eta utz nazazue bertan  
Zeru zabal eta izartuaren pean.  
Pozik bizi izan naiz eta pozik noa.  
Mesede bat, ostera, erortean.  
Jarri bertso hau ene hobian:  
Berton datza, luzez gurata bezala.  
Menditik etxera dator ehiztaria,  
Itsasotik etxera marinela.

(Rober Louis Stevenson, Requiem, in *De vuelta del mar, poemas*; Poesía Hiperión 27. Zbk., 14; itzulpena neurea da)

Etxean zen marinela eta euskara lantzeari ekin zion. Horri dagokionean, zalantza izpirik ere ez dago Etxeita gizandi legez agertzen zaigula gaurko ikuspuntutik begiratuta, berak egin baitzituen gure literaturako lehenengo bosten artean dagoen nobela bi (eta, horra, gure literatura urria aipatu dudanez, argi utzi nahi dut alderdi horretatik Etxeitaren lanari ez dariola gaztelerazko 98ko belaunaldiko egileetan ageri den girorik). Hala eta guztiz ere, baztertutik dugu mundakarra. Baina Etxeita gizanditza dugula esan dut eta, nire kezka azaldu nahi dut gaur hemen.

Gogoan izanik, orain arte esanda utzi dugun legez, Jose Manuel Etxeita bera Filipinetan luzaroan bizi izan zela eta Manila hiriburuko alkate izatera heldu zela, heldu ere, ulergaitz eta kasik sinestezin egiten zait mundakarraren

biografia, enpresa-gizona izan zen aldetik nahiz literaturgintzaren aldetik, zer dela eta ez den ia batere aztertu. Hona nire kezka.

Marinela etxean zela, kolonietako giroaz eta gertaerez gogoeta egiteko astia izango zuen, zalantza izpirik gabe. Ba ote da, horregatio, gogoeta horien arrastorik haren lanetan?

Erantzuten saiatuko naiz, hain zuzen ere, bere biografia nobelatua ei den *Jose txo* elaberrian eta *Jaioterri maitia* izenekoan koloniak eta haiekiko merkatal harremanak zelan agertzen diren azalduz, agerkera horiek pentsakera baten izpilu direlakoan bainago. Guzti hori, zertan-eta 98koa deritzan giroaren zantzuren batzuk antzematearren. Hasteko, hala ere, 98koa deritzan horretaz ohar bat.

Ez dakit non irakurria dudan 98an gertatu zen espainiar azken kolonia-galerak (ez ziren azkenak izan, baina azkenengotzako jotzen dira eta, elkar ulertzearen egiten dut) indarrak barrura begira jartzea eragin zuela. Ulertu beharko genuke, horretara jarriz gero, Espainia bera, hau da, penintsulako mugarteko Espainia bizkarrezurtzeko ahalegina etorriko zela galeraren ostean. Gertaerak bide horretarantz abiatu zirenentz jakiteko, ereduakoa ez dakit baina argigarria bada Etxeitaren kasua.

Jose Manuel Etxeita Luzarraga gureak baino hobeto, gutxik ezagutuko zuten kolonietako egoera<sup>3</sup>. Haatik, behin etxean dagoela marinela, Sabino Arana Goirik sortu zuen jel-proiektuko kide bilakatuko da.

Beraz, funts-funtsezko galdera dator orain, hain zuzen ere, kolonietako merkataria jardun zuen denboraldi luze hartan -hamasei urte Filipinetan, itsasontzietan ibilitakoez gainera- zer ote zerabilen buruan Espainia versus koloniak auzian gure merkataria. Ez dakigu. Baina hor ditugu elaberriak ezerten lagundu ahal badute ere.

*Jaioterri maitia*ko pertsonaiak, adibidez, Ameriketara joan dira, lehenago “Jose txo”, Jose Manuel beraren alter egoa, joan zen legez, hau da, dirua egi-

---

<sup>3</sup> 1862-67 bitartean, Frantziak, Espainiak eta Britainia Handiak Mexikori eraso zioten. Hala bada, nago aldi horretantsuko gertaerei ote dagokien J. M.an aitatzen den hurrengo hau:

Uste-uste barik zabaldu zan Mexikogaz gudu arazuak ebiltzazala: guzura izan zan gutzija; baña Españañ siñistu egin zan egia balitz lez, ta Tolas Etxaguntzaren jabiak, bildurrez, biraldu eutsan Sabasi irazki bat, esaten eutsala, etxaguntza saltzeko ogetamar milla ogorlekogaitik. (152. or.)

Baiezkoan nago ni. Hona *Oleri* aldizkarian (*Oleri*, 1962, 109. or.) Erkiagak dioena:

“Liverpool-en fragata aundi batean sartu zan, hain zuzen, ibiltaldi ori ez eban gutziz zorionekoa izan, Habana-ra zanean, Mexiku-ko Matanzas-erako agindua emon eutsen, ta emen lau ilabeteen lotu bearra izan eben, laterri ori guduan edo ebilela-eta.”

Kontuak eginda, Jose Manuelek anartean hogeitun urte bazituen, eta 42an jaio zenez gero, horra 62ko gertaerak direla Erkiagak aipatzen dituenak. Beraz, bere eskarmentuaz baliatzen da Etxeita *Jaioterri Maitia* elabarrian guda aipatzen denean.

teko asmoz. Diru-kontuak, artzainek ardienak bezain zorrotz egiten ditu Jose Manuel Etxeitak bere nobela bietan (*Jaioterri Maitiaren* hasieran artalde bakoi-tzeko zenbat ardi diren zehatz-mehatz azaltzen digu, *Josetxoren* hasieran ume-aren truke ijitoei zenbat oilo eman zizkieten bezain zehatz eta aratz). Diruari egundoko garrantzia ematen dio, ba. Eman ere, modu erabat anliterarioa den batean ematen du. Hona adibide bat:

	<u>Ogerleko</u>
etxaguntzea.....	105.000
845 bei, zezen eta zaldi.....	21.125
230 idi ta belarluze .....	4.600
609 ardi, auntz, arito ta aker.....	1.218
115 egazti.....	<u>23</u>
	131.966

Hain zuzen ere, non-eta hor, garrantzi emate horrexetan hasi gaitzke an-tzematen Kolonia haiek Etxeitarentzat zer diren: aberaspide hutsa<sup>4</sup>.

Robinson Crousoe bere irlan bezala dabilta Etxeitaren pertsonaiak Ameriketara. Bilbao Metropoli 30 horrek Abando-Ibarra inguruneaz iharduteko erabiltzen duen hizkera-mizkera horretan, “negozio aukera” (oportunidad de negocio) eskaintzen zuen Kontinente berriak.

Kontinente berrira joaten, bertotan hasi zaigu idazlea, eta ez da oharka-bean pasatzen uztekoa *Jaioterri maitiako* bertso sortetako bati darion Iparragirre kutsua:

Agur Ardibasoko  
Ardi-zain maitiak,  
Ardi ederrak eta  
Ibaia ta etxiak.  
Agur Aritx-tantaia, ta  
Asaben bidiak,  
Urrunera narube  
Neure naigabiak.

(*Jaioterri maitia*, 79. or.)

Ez dira berberak, nonbait, Etxeitak eta Iparragirrek “itsasoz joateko” izan zituzten arrazoiak. Kontua da, ostera, euskaldun ugari joan zela Ameriketara XIX. Mendean. Etxeita dago lekuko.

<sup>4</sup> Amerika, irabazpidea.

“Igaro ziran urtietan, lanak arduraz eginaz, ta irabazijak ondo zaindubaz, diru pillo polita batu eben Sabas eta Julek. Baeuken etxaguntzia erosteko biar zan gaña ugaza-bak saldu nai ebanian. Tomas ta Amelek be, irabazte oneko urte asko ezagutu ebezan”. (J. M., 151. or.).



Kontinente horretan euskaldun etorri berriak euskaldun egon zaharrarekin egiten du topo, eta behin topo eginez gero, negoziokide hartuko du beti bigarrenak lehena. Hasieran morroi edo laguntzaile, gero konfidantzazko gizon eta azkenik etxaguntzaren erosle, delako etxaguntza hori euskaldunaren eskutik eskura ibiliko da beti.

Ez da inondik ere administrazio espagnolaren aitamenik ageri Etxeitaren nobeletan. Hutsune nabarmena, Jose Manuel bera nolabaiteko funtzionarioa izan baitzen. Bada, nire susmoa, giza-psikologiaren azaleko ezagumen batean oinarritzen dena, hurrengoa da: lapsus bat dagoela Etxeitaren obra guztian. Ahaztu egin da, bat-batean, pertsonaien inguruan dagoen errealitatearen parte batez, eta baita euskaldunek errealitate horretan duten partehartzeaz ere. Horregatik hautatu du, beharbada, Amerika, Filipinak barik, pertsonaien mentura-lekutzat: berak Manilako (Filipinetako) administrazioan eta errealitatean parte hartu zuelako (Añamendi hiztegian esaten denez, Weyler eta Polavieja generalen laguna izan zen). Bego interpretazio hau argigarria litzatekeen beste alderdi bat noiz ikertuko zain; hain zuzen ere, Jose Manuel Etxeita berak dirua non egin zuen, Ameriketara ala Filipinetara, hara argitu beharrekoa (ikus berriro 2. oharra).

Ameriketara alderrai bezala diru bila dabiltzen pertsonaia horiek hango guduen berri ematen digute, bidenabar baino ez bada ere, eta beti-beti pertsonaien epopeiaren tamaina eta nondik norakoa adierazteko helburuarekin. Hala bada, sekula ez digu argituko nortzuk ari diren nortzuen aurka guda. España hitza ezta aitatu ere ez du egin nahi Jose Manuelek (*Jaioterri Maitia*, 152. or.), esanda utzi dudana legez. Egungo hitzekin esango genukeen moduan, gudu hura, askatasun-gudua zena, “ez zoan pertsonaiekin”. Etxeitaren pertsonaia Ameriketara ez daude beste ezertarako ondarea osatzeko baino.

Egiteke dagoen lana da aztertzea Josetxo eta *Jaioterri maitia* elaberrietan aitatzen diren gudaldiak zeintzu benetako gudaldiei dagozkien. Horretako, hasteko eta behin, nobelotan azaltzen diren gertaeren kronologia moduko bat behintzat moldatu beharko genuke.

Etxeitaren pertsonaia *au dessous de la mêlé* bizi diren arren, ez da ezkutatzen euskaldunek hango gobernuetan duten parte edo esku hartzea. Hildo horretatik, argigarria da *Jaioterri maitia* horretako pasarte bat, zera, Sabasi heriotz zigorra ematekotan direnekoa, ze, orduan haren andrea Jule militar agintariaren aurrean euskaraz aieneka hasi-eta, azken horren emazteak bera ere euskalduna dela dio, gehituaz baze senarraren aurrean saiatuko dela heriotz zigorra kentzen beste gixajoari.

Pertsonaia horietako batzuek Ameriketatik noiz alde egiten duten ere aipagarria da. Diru kontuen harira aipatu dugun *Josetxo* elaberriko orrialde horren aurrekoan hurrengoa irakurtzen dugu:

Ain zuzen be, Buenos Aires-ko aberats, diru asko irabazteko eretiak billatuten ibiltzen zan batek, jakinik Josetxo egoan etxaguntzan asko irabazten zala, ta gogoraturik, guduaren bildurrez diru gitxigaitik saldu nai izango ebala, joan zan Josetxogana beste gizon batzukaz, ta itandu eutsan:

- Nai dozuz saldu etxaguntza ta abere guztiak?

Alderdi interesgarriak eskaintzen ditu, bai, Josetxo horrek hainbat eta hainbat gairi buruzkoan. Hala nola, zein giro bizi izan zen hemendik joandakoen artean askatasun-guden eta batasun-guden garaietan<sup>5</sup>.

Alabaina, bada beste alderdi bat ere *Jaioterri maitia* elaberrian harritu egin nauena. Hain zuzen ere, jaioterri horretan dagoenik eta gizonik gaiztoena, emakumezko bat ilunpetan egurtzeko kapaz dena bera, Ameriketara egona dela eta Ameriketara ikasitako ohitura txarrak dituena dela jaioterrian dagoenik eta gizonik gaiztoena, emakumezko bat ilunpetan egurtzeko kapaz dena bera.

- Orregaz denderu oial-saltzailiaz nai ninduzuben ezkondu! Ai ama!, esan neutsuben nik, mutil horrek, Ameriketara ikasirik ekandu txarrak eukazala, ta orain agertu da nik uste nebazan gauzen argimena (*Jaioterri maitia*, 104. or.)

Horretara, nire ustez, Etxeita Sabino Arana Goirik aldarrika salatzen zuen harekin bat egiten du, alegia, gaiztakeria euskaldunei kanpotik zetorkielako topikoarekin. Bada gero!, Ameriketara diruak egiten ibili eta etxera bueltan hango ohiturak gaiztoak direla esan behar, zelan-eta kolonietan ibilitako euskaldunek diru-land(a) haietan ernalduriko ohitura txar hariekin edo harien ernalkuntzan zerikusirik izan ez balute bezala.

Arana Goiri aitatzeak Etxeita eta 98koa aztertzean funtsezkoen artekoa den datu batera eroan behar gaitu.

Funtsean, proiektu horren alde egingo duena euskaraz idaztea izango da. Gogoan hartzeko dateke, nire ustez, gaztelera ez diren beste hizkuntzen birpizkunde indartsua aro horretantsuan hasi zela. Beraz, sensu estrictu, 98koek bizkarrezurtze hori, hizkuntza bakar baten inguruan gura izan zuten, hizkuntza hori landuz, goraipatuz eta sendotuz egin ere. Baina horiek horrela nahi izan bazuten ere, beste askok indar zentrifugoak jarriko ditu lanean, eta ez dut uste ahaztekoa denik, bestalde, Unamuno edo Barojak bezala, beste batzuek ere ama-hizkuntza gaztelera ez zen beste bat izan zutela.

---

<sup>5</sup> 1860: Buenos Aires Konfederaziora itzuli zen. Horrela, Argentinaren behin-betiko batasuna gauzatu zen. Hurrengo urteetan Buenos Aires eta barnealdeko probintziako oligarkien arteko tirabirek matxinada eta altxamendu ugari sortarazi zuten. (*Elbuyar Hiztegi Entziklopedikoak*, 128. or.)

Alderdi horretatik Jose Manuel Etxeita ez da 98koa. Hala ere, izango da esango duenik, bai, Españaren dekadentziak eragin zituela gaztelera ez diren beste nazio-hizkuntzetarako grina. Politikagintzan dekadentzia horrek espāñolen ezintasunaren eta akats nagusien salaketa ekarri zuen berdintsu, behar bada. Beraz, batek baino gehiagok uste izango du Etxeitak euskaraz idaztearen aldeko hautamena egitean Inperioaren gainbeherak eraginda egin zuela; hala bada, 98koa zela, izpirituz. Orraziak orrazteko gogoia.<sup>6</sup>

Jose Manuel Etxeita jel-proiektuaren alde noiz jarri zen, ez dakigu. Gogoan izanik, oster, Salvador Ricardo Etxeita Arana, haren seme bakarra, Sabino Aranak osatu zuen lehenengo Bizkai Buru Batzarreko kidea izan zela hogeitalau urte hortxe-hortxe izango zituenean, 1895ean, eta data horretan Jose Manuel urteak zirela bizi zela Filipinetan, galdera da ea ba nork eragin zuen semearengan jel-fedea. Eta askoz ere garrantzizkoa dena, nork erein ote zuen norengan jel-hazia. Semeak edukazio sentimental bere kabuz egin zezakeela, uste izatekoa da. Edukazio sentimental horretan Arana Goiriren ideiek lur ongarritua idoro zutela Salbador Rikardoren bihotzean, zalantzarik ez. Elkar ezagutu ote zuten, Maisua eta bera elkarren haratik harakoan bizi ziren eta?

Dakiguna da, eta datu argigarria delakoan diot hau, *Jaioterri maitia* elaberrian *Euzkadi* hitza zenbait aldiz ageri dela, batean behintzat “Euzkadi edo Euskalerrria” idazten duelarik, oharturik, ziurren, Axularren bidea erabili beharra zuela, hots, sinonimoak makulu hartuta eginez pedagogi-lana. Beraz, *Josetxo* argitaratu zuenetik (1909) *Jaioterri maitia* (1910) kaleratu arteko bitartean berba horren (Euzkadiren) aldeko bilakaera gertatu da. Hitzaren hautaketa ez dut uste debaldekoea denik. Sakoneko fede batek hartu du idazlea, garbizaletasunera erabateko jauzi egin barik ere berba sortu berri ugari ageri baita bigarren nobela horretan. Ez da, haatik, Aranazale itsua, ezta begibakarra ere. Gera bedi argi.

## Ondorioak

Itsasotik sorterriko etxera betiko itzulita, indarrak barrukoari begira jarriko ditu Jose Manuel Etxeita mariñelak, 98koaz geroztik Espainia guztian beste askoz egin omen zuten bezala jarri ere; halabeharrez. Haatik, Etxeitaren barrura-begira egite hori ez da Espainiaren bizkarrezurra (hizkuntza, ohiturak, egitasmo politikoa) sendotzearen alde egingo, bestela baino, hots, euskara, euskal ohiturak eta jel proiektuaren alde baizik. Labur, Euzkadiren alde egiten du eta, bidenabar edo zelan ere den -gaur egun esango genukeen moduan, “gurabako edo bilatu bariko efektuz”-, Espainia desmenbratzeko edo, hobeto esan-

<sup>6</sup> Antzeko argudioak erabili izan dira esateko, baze, dira jeltzaletasuna dagoenik eta jarrerarik espāñolena dela. (Ikus Jon Juaristi, *Vestigios de Babel*).

da, bizkarrezurtu ez dadintzat (la España desmenbrada) lan egiten du. Zeregin horretan ere 98koa iritzi izan zaion ustezko giro horren zantzuak adi daitezkeela, azken batean desmenbrazioarako joera 98koa giroaren ezaugarrietako bat delako? Litekeena da, eta kasu horretan Etxeita 98koa dukegu. Baina auzi horretan sartzea eta orraziak orrazten hastea gauza bera, nire ustez. Zeregin melankoniatsua, orraziak orraztearena, gurea barik gehiago dena lamiena edota literatura-katetradun ospetsu-adituena.